



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko maiatzaren 28a

71. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea aldatzen duena. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Interpelazioa, industria-lurzoruaaren plangintzaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztu du (6. or.).

—Interpelazioa, talentua garatzeko, atxikitzeko eta erakartzeko Nafarroako politika orokorrari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztu du (7. or.).

—Interpelazioa, Gizarte Zerbitzuen Oinarriko Laguntzaren arloan garatu beharreko politikari buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak aurkeztu du (7. or.).

—Interpelazioa, komunikazioari dagokionez, Foru Komunitatean hedabide publiko bat sustatzeko aukerari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak aurkeztu du (8. or.).

—Interpelazioa, zerga-arloko politika orokorrari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (8. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, zaintzaileen ordezkariekin 2109/2012 ebazpena ordeztuko duen ebazpen berri bat negoziatzeari buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (10. or.).

—Galdera, Nafarroako Ubidearen 1. fasearen handitzearen lurzatiak entregatzeko atzerapenari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (11. or.).

—Galdera, SARS-CoV-2 koronabirusaren Nafarroako sekuentziaioari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (11. or.).

—Galdera, 5/2021 Errege Lege-dekretuko I. eranskineko sektore ekonomikoak zabalagotzeari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (12. or.).

—Galdera, lanak kanpoan kontratatzeko edo pribatizatzeke Osasun Departamentuak daukan politikari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (12. or.).

- Galdera, Nafarroako kultura-sektoreari gure erkidegotik kanpo lagun egiteari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, “Nafarroako Foru araudia Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen aldeko Nazioarteko Konbentzioari egokitzeari buruzko txostena” delakoari buruzkoa. Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea (14. or.).
- Galdera, COVIDa dela-eta sensibilizatzeko sareei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, azaroaren 11ko 82/2020 Foru Dekretuan Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakariaren eta Foru Gobernuako Justizia kontseilariaren baterako lehendakaritza kentzeari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroan enpresek sozietateen gaineko zergan ordaintzen duten tasa efektiboari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, atzerriko hizkuntzaren hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan egiaztagiri iragankorraren bidez aldi baterako jarduten duten irakasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien energia-efizientziako jarduketak, zeinak 149/2021 Errege-dekretuan jasotzen baitira, egiteko programatik heldu diren laguntza zuzenen deialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, sektore-eremuen gaineko eskumenari buruzkoa, gure erkidegoan bizi diren migratzaileen kasuetan buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko laborategi bateraturako eraikin berria egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Adolfo Araiz Flamarique jaunak foru lege proposamen bat aurkeztu du, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea aldatzen duena, eta eskatu du presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin. (10-21/PRO-00010)

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena**

**ZIOEN AZALPENA**

Koronabirusaren pandemiak eragindako egoera sanitario, sozial eta ekonomiko larriari aurre egiteko, Europar Batasuneko eta estatu kideetako erakundeek aurrekaririk ez duen ahalegina egin dute, horretarako behar diren neurri guztiak hartzeko. 2020ko uztailetik azarora bitarte suspertze plan handinahi bat jarri zen abian, 2021-2027 epe luzeko aurrekontu-programa bat eta aldi baterako mekanismo berri bat –NextGenerationEU ekimena– jasotzen dituena. Horretarako, 1,8 bilioi euroko aurrekontu-esparru bat ezarri da, ekologikoa, digitala eta erresilienteagoa izan dadin.

Estatu kideen artean lortutako akordioek hiru ardatz edukiko dituzte: ikerkuntza eta berrikuntza (Horizon Europe); trantsizio klimatiko eta digital bidezkoak (Bidezko Trantsiziorako Funtsa eta Digital Europe programa); eta prestakuntza, suspertzea eta erresilientzia (Supertze eta Erresilientzia Funtsa, rescEU, eta EU4Health osasun programa). Orobat jartzen da arreta politika tradizioaletan (kohesio politika eta nekazaritza politika erkidea), klima-aldaketaren aurkako borrokan (EBren funtsen % 30, Europako aurrekontuan inoiz jarritako portzentajerik handiena), biodibertsitatearen babesean eta genero-berdintasunean.

Testuinguru horretan, NextGenerationEU ekimena, zeina Kontseilu Europarrak 2020ko uztailaren 21ean onetsi zuen Suspertzerako Europako Bitartekoan gauzatzen baita, aldi baterako suspertze-bitarteko bat da, 750.000 milioi euroko zuzkidura duena eta Batzordeari aukera emanen diona kapitalen merkatuan funtsak lortzeko, koronabirusaren pandemiak eragindako berehalako kalte

ekonomiko eta sozialak konpontzen laguntzearren.

Honako zutabe hauek bereizi beharra dago:

- Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa da NextGenerationEU-ren osagai nagusia. 672.500 milioi euro dira, maileguetan nahiz dirulaguntzetan baliagarri daudenak Europar Bata-suneko herrialdeek abiarazitako erreformak eta inbertsioak babesteko. Helburua da koronabirusaren pandemiak izan duen inpaktu ekonomiko eta soziala arintzea eta Europako ekonomiak eta gizarteak jasangarriagoak eta erresilienteagoak izan daitezen eta trantsizio ekologiko eta digitalaren erronka nahiz aukerei aurre egiteko prestatua-goak egon daitezen lortzea.

- Europako Lurraldeak eta Kohesioa Berreskuratzeko Laguntza (REACT-EU), 47.500 milioi euroko zuzkidura duena. Ekimen berri bat da, Koronabirusari Erantzuteko Inbertsio Ekimenaren eta Koronabirus Plus-i Erantzuteko Inbertsio Ekimenaren bidez aplikatutako neurriak (krisiari erantzutekoak eta ordaina ematekoak) mantendu eta handitzeko. Ekonomiaren suspertzea ekologiko, digital eta erresilientea izaten lagunduko du. Honako funts hauen eskura jarriko dira funtsak: Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF), Europako Gizarte Funtsa (EGF) eta Pertsona Behartsuenendako Europako Laguntzen Funtsa (FEAD).

- Azkenik, bitarteko horren bidez Europako beste programa edo funts batzuetarako funts osagarriak ere paratzen dira; esaterako, 2020 Horizontea, InvestEU, Landa Garapena edo Bidezko Trantsiziorako Funtsa (BTF).

Testuinguru horretan, Espainiako Estatuak 140.000 milioi euro jasoko ditu transferentzietan nahiz maileguetan Suspertzerako Europako Bitarteko horren bidez. Ogasun Ministerioak Nafarroari jada jakinarazi dio 148 milioi euro dagozkiola REACT-EU Funtseko 10.000 milioien banaketan.

Espainiako Gobernuak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana behin onetsita, Kontseilu Europarrak berretsi behar du plana gero bete dadin, baina orain arte ez da zehaztu Nafarroako Gobernuak aurkeztutako proiektuetatik zeintzuk sartuko diren Suspertze eta Eraldatze Ekonomikorako Proiektu Estrategikoetan edo Europako funtsen bestelako kudeaketa-tresnetan. Hortaz, oraindik ez da ezagutzen Europako funts horietatik zer diru-kopuru kudeatuko duen Nafarroako Gobernuak. Edozein modutan ere, Gobernuak Europako funts horietatik diru-kopuru handia kudeatu beharko duela aurreikusten da.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 10.3 artikulua honako hau ezartzen du: "Gobernu Irekiaren Espazio Digitalak eta sortzen diren espazio digitalek Interneten publizitate aktiboa zabaltzeko plataforma elektronikoren izaera izanen dute (...)". Foru lege horren 18. artikuluan eta hurrengoetan, berriz, administrazio publikoek, erakunde publikoek, entitateek eta subjektuek zer informazio argitaratu behar duten arautzen da. Nafarroako Gobernuak eman beharreko informazio horren barruan sartzen dira Europako funtsen kudeaketarekin lotutako hainbat arlo; esate baterako, kontratazio publikoa, zerbitzu-emakida, lankidetzeta-hitzarmenak, kontratu-programak, esleipenak eta baliabide berekietarako mandatuak eta dirulaguntzen arloko jarduerak.

Funts horien kudeaketa, onetsitako Europako araudiarekin bat, ahal den gardentasun handienarekin egin behar da; hortaz, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen tresna zehatz bat jaso beharra dago, herritarari begira hobetzeko Europako funtsen bidez finantzatutako proiektuen deialdiaren, esleipenaren eta ezarpenaren prozesuan informazio publikoaren kontrola eta gardentasuna.

Europako funts horien kudeaketaren garrantzi kuantitatibo eta kualitatiboak eskatzen du gardentasun hori areagotzea eta berariazko tratamendua izatea Foru Administrazioaren Gobernu Irekiaren Atarian.

**Artikulu bakarra.** Xedapen iragankor berri bat gehituko zaio Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeari.

«Xedapen iragankorra. Europako Lurraldeak eta Kohesioa Berreskuratzeko Laguntzatik (REACT-EU) eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik (Next-EU) heldu diren Europako funtsen kudeaketari buruzko Gardentasunaren Ataria.

Xedapen honetan ezarritakoari jarraikiz egiten da foru lege honen II. tituluaren III. kapituluaren ezarritako publizitate aktiboa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko abenduaren 23ko 2020/2221 Erregelamenduak (REACT UE) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduak araututako funtsak Nafarroako Gobernuak kudeatzeari dagokionez.

### Lehena. Gardentasunaren Ataria

1. Gobernuaren Gardentasunaren Atariak berriazko atal bat edukiko du bere webgunean, “Europako suspertze funtsen kudeaketarako publizitate aktiboa” izenekoa, non argitara emanen baitira Europako Lurraldeak eta Kohesioa Berreskuratzeko Laguntzatik (REACT-EU) eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik (Next-EU) heldu diren Europako funtsen kudeaketari buruzko datu publikoak, eta funtsak kudeatzen dituzten departamentuen, erakunde autonomoen eta enpresa publikoen informazioa zentralizatuko baita.

Honako hau jasoko du, gutxienez ere:

a) Nafarroan suspertze funts horietan parte hartzen duten entitate publiko eta pribatu guztien zerrenda –horretarako esleipen edo hitzarmen moldea zein ere den–, baldin eta horien kudeaketa Nafarroako Gobernuari edo bere mendeko erakunde edo entitateei badagokie.

b) Suspertze funts horien deialdi-fasean dauden kontratuen, kredituen eta dirulaguntzen, errekurtsuen, emakidaren eta exekuzioaren zerrenda gaurkotua.

c) Europako Next Generation funtsetarako Bulegoaren eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientziarako Batzordearen Proiektuen Bulegoaren txostenak, proposamenak, jarraibideak, irizpenak, azterlanak, gomendioak eta orientabideak, Europako funts horien kudeaketarekin zerikusia dutenak.

d) Departamentu bakoitzaren kontu-hartzailetza delegatuaren eta Gobernuaren Kontu-hartzailetza Orokorren txostenak, Europako funts horien kudeaketa dela-eta eginak.

e) Europako funts horien kudeaketa-zentroek egindako agiri-ereduak.

f) Europako funts horien kargura finantzatutako kontratuen esleipen-hartzaile izan diren enpresek edo bestelako entitateek sinatutako azpikontratazio-kontratuak.

2. Interes publikoko arrazoiengatik, argitara emandako informazioen osotasuna eta eskuragarritasuna bermatuko dira:

a) Informazioaren integrazioa, publizitatea, tramitazioa, emakida, exekuzioa, baldintzen betetzea eta auditoriak.

b) Funts horien kudeaketari buruzko mapa ulergarri eta eskuragarri bat egitea, informazio hori non eta nola lortu adierazita.

c) Datu ireki eta berrerabilgarriko formatuan argitaratzea informazioa.

d) Dokumentazio hori formatu digitalean eskuragarri egon beharko da sinatzen denetik gehiezin ere hilabeteko epean: kontratuak, hitzarmenak eta dirulaguntzak.

e) Funtsen aurrekontu-exekuzioa aldiro argitaratzea. Informazio hori hiru hilean behin argitaratu eta gaurkotuko da.

f) Araudiak onesteko prozesuen sistematizazioa eta publizitatea.

g) Gobernuaren erabakiak eta departamentuetako organo eskudunen, organismoen edo Nafarroako Gobernuaren mendeko enpresa publikoen ebazpenak.

3. Gobernuak neurriak hartuko ditu “Europako suspertze funtsen kudeaketarako publizitate aktiboa” ataria gauzatu ahal izateko. Halaber, behar adina baliabide bermatuko dira Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak behar bezala bete ahal izan ditzan esleitu zaizkion eginkizunak, Europako funts horien kudeaketaren gaineko erreklamazioei dagokienez.

#### Bigarrena. Publizitatea eta komunikazioa

1. Baldin eta, eraginkortasunaren edo efizientziaren izenean, plangintza estrategikoaren osagai edo jardueraren bat kanpoan komunikatu beharko balitz, horretarako beharrezkoak diren neurriak hartuko dira publizitate instituzionalari dagokionez.

2. Halaber, Europako araudiak agindutako elementu guztien komunikazio publikoa bermatuko da, Europako baliabideekin finantzatutakoaren publizitateari dagokionez».

#### **Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**

**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Interpelazioa, industria-lurzorua- ren plangintzaren arloko politika orokor- rari buruzkoa.**

*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkezturiko interpelazioa, industria-lurzorua-  
ren plangintzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapide-  
tzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-  
an argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estra-

tegikoetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehendik zeuden lau sozietate publikoren bat-egite hotzetik sortu zen sozietate publikoa da Nasuinsa. Haietako bat, Nasuinsa, Garapen Ekonomikorako Departamentuari atxikirik zegoen, eta haren ardurapekoa zen industria-lurzorua-  
ren plangintza, zeina beharrezkoa baita foru erkidego-  
an industria- eta logistika-jarduerak ezartzeko eskariari erantzuteko.

Eginkizun hori, egun, Nasuinsak zertzen du. Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari atxikita badago ere, haren Administrazio Kontseiluan Nafarroako Gobernuko lau departamen-  
tuk parte hartzen dute.

Horregatik guztiagatik, honako interpelazio hau aurkezten dugu:

Interpelazioa, industria-lurzorua-  
ren plangintzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

## **Interpelazioa, talentua garatzeko, atxikitze eta erakartzeko Nafarroako politika orokorrari buruzkoa.**

*ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkezturiko interpelazioa, talentua garatzeko, atxikitze eta erakartzeko Nafarroako politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroa Espainiako talentu autonomikoaren maparen buruan agertzen da. Talentua, jakina, babestu eta sustatu beharreko aktibo bat da. Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuari honako interpelazio hau aurkezten diogu:

Talentua garatzeko, atxikitze eta erakartzeko Nafarroako politika orokorra.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

## **Interpelazioa, Gizarte Zerbitzuen Oinarrizko Laguntzaren arloan garatu beharreko politikari buruzkoa.**

*ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak aurkezturiko interpelazioa, Gizarte Zerbitzuen Oinarrizko Laguntzaren arloan garatu beharreko politikari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko kide Isabel Aramburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Gizarte Zerbitzuen Oinarrizko Laguntzaren arloan garatu beharreko politikari buruzko interpelazioa, Eskubide Sozialetako Departamentuari zuzendua.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Isabel Aramburu Bergua

## Interpelazioa, komunikazioari dagokionez, Foru Komunitatean hedabide publiko bat sustatzeko aukerari buruzkoa.

*MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkezturiko interpelazioa, komunikazioari dagokionez, Foru Komunitatean hedabide publiko bat sustatzeko aukerari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaibatu eta bozkatzeko.

Komunikazioari dagokionez, Foru Komunitatean hedabide publiko bat sustatzeko aukerari buruzko interpelazioa, Nafarroako Gobernuari zuzendua.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

## Interpelazioa, zerga-arloko politika orokorrari buruzkoa.

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko interpelazioa, zerga-arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Azkenaldiko igoera txiki batzuk gorabehera, azken hamahiru urteotan nabarmen jaitsi da sozietateen gaineko zergaren bidezko diru-bilketa; zerga-murrizketa eta -onuren zenbatekoak, aldiz, ez dira ia gutxitu. Ondorioz, diru-bilketari erreparatzen badiogu, igo egin da horien portzentajea.

Aurreko krisia lehertu zen urtean, 2008an, atzera-egite nabarmen bat gertatu zen zerga horren gorako ildoan, eta asko jaitsi zen, aurreko urteen aldean, zerga horren bidezko diru-bilketa. Hala, 2007an 589 milioi euro bildu ziren, eta 2019an, berriz, 275. Bitartean, bi ekitaldi horietako zerga-onurak 188 eta 126 milioikoak izan ziren, hurrenez hurren.

Argi dago sozietateen gaineko zergak pisua galdu duela zerga bidezko diru-bilketa orokorrean eta ez dagoela korrelaziorik zerga horrek sortutako diru-sarreraren eta zerga-onuren artean. Komeniko litzateke, hortaz, zerga-onura horiek berrikus-tea motibazioei, kopuruei, ehunekoei, epeei, enpresa-motei eta abarri dagokienez. Horretarako, banan-banan aztertu beharko lirateke horiek denak, ikusteko ea bizi dugun une honetarako egokiak diren.



Horrekin batera, sakonki aztertu beharko litzateke zer alde dagoen ezarritako tasa nominalen eta azkenean –hain zuzen ere aipatutako zerga-onurak eragiten dituzten zerga-pizgarri, salbuespen, murrizketa, kenkari eta gainerako horien ondorioz– aplikatzen diren benetakoen artean.

Horregatik guztiagatik, zergen arloko politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten dugu.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

---

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, zaintzaileen ordezkariekin 2109/2012 ebazpena ordeztuko duen ebazpen berri bat negoziatzeari buruzkoa.***MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztutako galdera, zaintzaileen ordezkariekin 2109/2012 ebazpena ordeztuko duen ebazpen berri bat negoziatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari María Roncesvalles Solana Arana andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentua ez da zaintzaileen ordezkariekin eseri 2109/2012 Ebazpena ordeztuko duen ebazpen berri bat negoziatzera, nahiz eta horrela hein batean beteko zen Aniztasunari Erantzuteko Planean jasotakoa, programa-akordioaren 11. puntua onartzean hitzartu bezala. Zergatik?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: María Roncesvalles Solana Arana

## **Galdera, Nafarroako Ubidearen 1. fasearen handitzearen lurzatiak entregatzeko atzerapenari buruzkoa.**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubidearen 1. fasearen handitzearen lurzatiak entregatzeko atzerapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako ahozko galdera egiten dio Landa Garapeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuak atzerapen handia darama Nafarroako Ubidearen 1. fasearen handitzearen lurzatiak jabeen entregatzeko. Zergatik?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## **Galdera, SARS-CoV-2 koronabirusaren Nafarroako sekuentziarioari buruzkoa.**

*PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, SARS-CoV-2 koronabirusaren Nafarroako sekuentziarioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun diezaion:

SARS-CoV-2 birusaren mutazioa da COVID-19aren pandemian aurre egin beharreko arazorik handienetako bat, birulentzia edo infektibitate handiagoa erakutsi duten andui berriak sortzen ari baitira; esaterako, brasildarra, indiarra edo hegoafrikarra. Hortaz, hil edo bizikoa da mutazio horiek identifikatzea ahalbidetzen duten teknikak baliatzea nafarrak babesteko.

Nafarroan nola egiten ari da SARS-CoV-2 koronabirusaren sekuentziarioa?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

## **Galdera, 5/2021 Errege Lege-dekretuko I. eranskinen sektore ekonomikoak zabalagotzeari buruzkoa.**

### *AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak aurkeztutako galdera, 5/2021 Errege Lege-dekretuko I. eranskinen sektore ekonomikoak zabalagotzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekono-

mia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

COVID-19aren pandemiari erantzuteko enpresen kaudimenari laguntzeko aparteko neurriei buruzko martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-dekretuak besteak beste ezartzen du autonomoentzako eta enpresentzako laguntza zuzenen Covid lerro bat sortuko dela sektore pribatuaren kaudimena aldezteko. Banaketa-irizpide horien arabera, Nafarroari 68 milioi euro dagozkio.

Diputatuen Kongresuak, gainera, 6/2021 Errege Lege-dekretua baliozkotu zuen, halako moduan non autonomia erkidegoek hasiera batean ezarritakoei baino sektore gehiagori ematen ahal baitzizkiete laguntzak.

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik 5/2021 Errege Lege-dekretuaren I. eranskinen ezarritako jarduera-sektoreei baino gehiagori emateko laguntzak?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 19an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

## **Galdera, lanak kanpoan kontratatze edo pribatizatzeko Osasun Departamentuak daukan politikari buruzkoa.**

### *DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, lanak kanpoan kontratatze edo pribatizatzeko Osasun Departamentuak daukan politikari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2021eko maiatzaren 17an, "trafiko" istripu batean hil zen langile bat; zehazki, banatzaile bat. Daniel Zugasti zuen izena, eta 23 urte zeuzkan. Osasunbidearentzat lan egiten duen garraio-entrepresa batean egiten zuen lan. Zehazki, pertsona hori lan-istripu batean hil zen, Nafarroako Odol Bankutik Tuterako Ospitalera odola eta erre-aktiboak garraiatzen ari zenean.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

- Enpresa pribatuek lan horiek egiteko dauzkaten baldintzak kontrolatzeko zailtasunak ikusita, Osasun Departamentuak ba al du asmorik lanak kanpoan kontratatzeke/pribatizatzeko politika berrikusteko?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

---

## **Galdera, Nafarroako kultura-sektoreari gure erkidegotik kanpo lagun egiteari buruzkoa.**

*CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako kultura-sektoreari gure erkidegotik kanpo lagun egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura eta Kiroleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kultura Departamentuak zer babes-plan dabil kulturaren sektoreei Nafarroatik kanpo lagun egiteko?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

## **Galdera, “Nafarroako Foru araudia Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen aldeko Nazioarteko Konbentzioari egokitzeari buruzko txostena” delakoari buruzkoa.**

### *ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Nuria Medina Santos andreak aurkezturiko galdera, “Nafarroako Foru araudia Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen aldeko Nazioarteko Konbentzioari egokitzeari buruzko txostena” delakoari buruzkoa, Eskubide Sozialeta-

ko Batzordean izapidetu dadin. Galdera 2021eko maiatzaren 18ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. (10-21/POR-00223)

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Galdera, COVIDa dela-eta sentsibilizatzeko sareei buruzkoa.**

### *JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, COVIDa dela-eta sentsibilizatzeko sareei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hauek aurkezten ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1. Nork eta zer irizpideri jarraikiz erabaki du zein 6 herritan ezarriko den COVIDa dela-eta sentsibilizatzeko sarea?

2. Ekimen hori zergatik ez da zabaldu Nafarroako beste eremu batzuetara? Etorkizunean egiteko asmorik ba al dago? Hala baldin bada, zer epe darabilzue gogoan?

3. Nor eta nola arduratu da migratzaileen artean lidertzat hartzen duten pertsona hautatzeaz?

4. Zenbat lider eta zer herrialdeetakoak ezarri dira 6 herri horietako bakoitzean?

5. Zer prestakuntza-mota eman zaie tokiko lider horiei? Nork eman du prestakuntza hori? Zenbat ordukoa izan da? Zer egunetan eta zer tokitan eman da?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## **Galdera, azaroaren 11ko 82/2020 Foru Dekretuan Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakariaren eta Foru Gobernuako Justizia kontseilariaren baterako lehendakaritza kentzeari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, azaroaren 11ko 82/2020 Foru Dekretuan Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakariaren eta Foru Gobernuako Justizia kontseilariaren baterako lehendakaritza kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1. Nafarroako Justizia Kontseilua sortzen duen azaroaren 11ko 82/2020 Foru Dekretuan kendu egin zen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakariaren eta Foru Gobernuako Justiziako kontseilariaren baterako lehendakaritza, zeina 2004ko dekretuan ezartzen baitzen. Zergatik?

2. Zure ustez, organo horretako kide izateak "baterako lehendakari" izateak baino "maila handiagoa" ematen al du?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## **Galdera, Nafarroan enpresek sozietateen gaineko zergan ordaintzen duten tasa efektiboari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroan enpresek sozietateen gaineko zergan ordaintzen duten tasa efektiboari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera idatzi hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan:

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak sozietateen gaineko zergari buruzko informazioa ematen du aldiro. Informazio hori Interneteko honako helbide honetan ematen ohi da: [https://www.navarra.es/home\\_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+de+partamentos/Economia+y+Hacienda/Organigrama/Estructura+Organica/Hacienda/Impuestossociedades.htm](https://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+de+partamentos/Economia+y+Hacienda/Organigrama/Estructura+Organica/Hacienda/Impuestossociedades.htm).

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak ez bezala, Nafarroako Ogasunak estatistika horietan ez du ematen "onuren gaineko tasa efektiboari"

buruzko informaziorik; “zerga-oinarriaren gaineko tasa”, aldiz, bi magnitudetan xehakaturik ageri da. Kontuan hartuta onuren gaineko tasa efektiboa “kuota likidoa zati onura hori” dela eta enpresak Ogasunaren zerga bidezko diru-sarreretan zuzenean eragindako onuren portzentajea dela, uste dugu funtsezkoa dela informazio hori Nafarroako Ogasunak eskaintzen dituen azterlan soziometrikoetan agertzea.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

1. Nafarroako Ogasunak zergatik ez du ematen “onuren gaineko tasa efektiboari” buruzko informaziorik sozietateen gaineko zerga dela-eta argitaratzen duen informazioan?

2. Ba al duzu asmorik –Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak jada egiten duen moduan– onuren gaineko tasa efektiboari buruzko informazioa jasotzeko 2019ko eta hurrengo ekitaldietako azterlan soziometrikoan?

3. Zein izan zen 2010etik 2019ra bitarteko ekitaldietan Nafarroako enpresen onuren gaineko tasa efektiboa, urtez urte?

4. Onuren gaineko zer tasa efektibo izan zuten urte horietan enpresa-talde gisa kotizatu zuten enpresek? Eta enpresa-talde gisa ez bestela kotizatu zuten enpresek?

5. Enpresek onuren gaineko zer tasa efektibo izan zuten urte horietan aplikatu behar zitzaizkien zerga-tasaren arabera?

6. Enpresek onuren gaineko zer tasa efektibo izan zuten urte horietan soldatuko langile kopuruen arabera?

7. Onuren gaineko zer tasa efektibo izan zuten urte horietan zeukaten jarduera ekonomikoaren arabera?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 19an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, atzerriko hizkuntzaren hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan egiaztagiri iragankorraren bidez aldi baterako jarduten duten irakasleei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreakegindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, atzerriko hizkuntzaren hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan egiaztagiri iragankorraren bidez aldi baterako jarduten duten irakasleei buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 19ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren elehun Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko 10-21/PES-00080 galdera aurkeztu die 2021eko otsailaren 10ean Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eta Eledunen Batzarrari. Hori dela-eta, hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak ematen duen informazioa:

1. Azken sei ikasturteetan, zenbat irakaslek bete dituzte, aldi baterako, atzerriko hizkuntzaren eskakizuna duten lanpostuak, apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuko lehenbiziko xedapen iragankorrek aurreikusten duen egiaztagiri iragankorraren bidez?

- 2014-09-01etik aldi baterako 5.632 kontratu egin dira C1 hizkuntza profila eskatuta (ingeleseko C1 profila, frantseseko C1 profila edo alemaneko C1 profila).

- 5.632 kontratu horiekin bitarte baterako 1.800 pertsona aritu dira, guztira.

- 1.800 pertsona horietatik 185 profil iragankorrekin kontratataturik egon dira.

2. Denbora horretan, horietako zenbatek eskuratu dituzte hizkuntza-eskakizunak lortzeko prozedura arautzen duen martxoaren 11ko 32/2013 Foru Aginduak behartzen dituen titulazio ofizialak?

Hezkuntza Departamentuan ditugun datuen arabera, badira profil iragankorra izandako bitarte-



ko langileak gerora C1 hizkuntza profila egiaztatu dutenak (beraz, desaktibatu egin zaie lehengo profil iragankorra).

- Hain zuzen ere, 2014az geroztik, hizkuntza profil iragankorra zuten 127 bitarteko langilek gerora C1 hizkuntza profila egiaztatu dute (beraz, desaktibatu egin zaie lehengo profil iragankorra).

- Gaur egun 192 bitarteko langile ditugu profil iragankorra dutenak.

- Beraz, profil iragankorreko bitarteko langileak 323 dira guztira: gaur egun profil hori indarrean daukaten 192 pertsonak gehi noizbait C1 hizkuntza profila egiaztatu eta profil iragankorra baja emanda daukaten 127 pertsonak.

3. *Hezkuntza Departamentuak egin al du inolako ebaluaziorik, aztertze aldera nolako eraginkortasuna izan duten, aginduzkoa den C1 titulazioaren lorpena sustatzeari dagokionez, irakasleen prestakuntzara bideratutako ahaleginak eta egiaztagiri iragankorrek?*

Ez da egin halakorik.

4. Neurri iragankor horiek ikasleen gaitasunean eta haien irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan izandako eragina neurtu al da inola?

Ez da ebaluatu.

5. Araubide iragankor hori aurtengo abuztuaren 31n amaitzen dela kontuan hartuta, zein da Hezkuntza Departamentuaren asmoa?

Gaur egun 37/2014 Foru Dekretuaren aldaketa bat izapidetzen ari da, eta Administrazioaren proposamena egiaztagiri iragankorra kentzearen aldekoa da. Hala ere, arau-aldaketa izapidetzen ari da une hauetan, eta litekeena da azkenean bestelakoa izatea.

Hori guztia jakinarazten dizut behar diren ondorioak sor ditzan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 23an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## **Galdera, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien energia-efizientziako jarduketak, zeinak 149/2021 Errege-dekretuan jasotzen baitira, egiteko programatik heldu diren laguntza zuzenen deialdiari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien energia-efizientziako jarduketak, zeinak 149/2021 Errege-dekretuan jasotzen baitira, egiteko programatik heldu diren laguntza zuzenen deialdiari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 25eko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak galdera idatzia aurkeztu du (10-21/PES-00136), Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiate-

gien energia-efizientziako jarduketak, zeinak 149/2021 Errege-dekretuan jasotzen baitira, egiteko laguntzen programatik eratorritako zuzeneko dirulaguntzen deialdiari buruzkoa. Honako hau da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak horri buruz informatu beharrekoa:

1. *Noizko aurreikusten du Nafarroako Gobernuak onestea zuzeneko dirulaguntzen deialdia, Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien energia-efizientziako jarduketak, zeinak 149/2021 Errege-dekretuan jasotzen baitira, egiteko programatik heldu direnena?*

Aurreikuspenaren arabera, deialdia 2021eko ekainaren 10a baino lehenago argitaratuko da. Gaur den egunean deialdi-kudeaketako organoak prestatze- eta izapidetze-fasean dihardu.

2. *Zein departamentu arduratuko da dirulaguntzen deialdia arautzeaz eta onestez eta*

zein izanen da laguntzak emateko prozedura ebazteko organo eskuduna?

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua; Industriaren, Energiaren eta S3 Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusia; Trantsizio Energetikoaren Zerbitzua; Plan Energetikoaren Atala.

3. Zein da Nafarroako Gobernuak aurreikusten duen gehieneko eta gutxieneko kostu hautagarria, errege dekretuan aurreikusten den jarduketa bakoitzeko?

Deialdiko oinarri arauemaileak prestatze-fasean daude, eta organo kudeatzailea jarduketa bakoitzaren gehieneko eta gutxieneko kostu hautagarriak ari da aztertzen, sektorearen beharrezanetara egokitzeko eta martxoaren 9ko 149/2021 Errege Dekretuak ezartzen duen esparruan. Gaian eskudun diren Nafarroako Gobernuko zerbitzuekiko elkarrizketak abiatu dira, aipatu kostuen mugak zehazte aldera.

4. Zein da Nafarroako Gobernuak ezarri gogo duen laguntzen zenbatekoa, jarduketa eta onuradun bakoitzeko?

149/2021 Errege Dekretuak ezartzen duenez, jarduketa bakoitzeko, laguntzaren gehieneko heina kostu hautagarriaren % 30ekoa izanen da. Onuradun bakoitzak jarduketa aurreikusi bakoitzeko eskura dezakeen gehienekoa aztertzen ari da kudeatze-organoa, sektorearen beharrezanetara hobekien egokituta egon dadin. Aipatu gaian eskudun diren Nafarroako Gobernuko zerbitzuekiko elkarrizketak abiatu dira, adierazitako zenbatekoak zehazte aldera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 30ean

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

## **Galdera, sektore-eremuen gaineko eskumenari buruzkoa, gure erkidegoan bizi diren migratzaileen kasuetan buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, sektore-eremuen gaineko eskumenari buruzkoa, gure erkidegoan bizi diren migratzaileen kasuetan buruzkoa. Galdera 2021eko apirilaren 15eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-21/PES-00145), Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

*“Azken batean, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren eskumenekoa al da sektore-eremuen gaineko eskumena, hala nola*

*etxebizitzaren edo osasunaren gainekoa, gure erkidegoan bizi diren migratzaileen kasuan?*

*Departamentuak beste departamentu batzuen erabakietan parte hartzen al du, horien jomuga migratzaileak direnean?”*

Kontseilariak honako erantzun hau ematen du:

Migrazio Politiketako Departamentuak, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, bere eginkizunen artean du Nafarroako Gobernuan migrazio-politikak koordinatu eta ebaluatzea.

Bere bi zerbitzuetatik, Karibu (Harrera eta Lagun Egiteko Zerbitzua) eta Ayllu (kulturarteko elkarbizitzarako eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkakoa), koordinazio- eta ebaluazio-eginkizun horretan ekintza ezberdinen bitartez sakontzen da:

– Nafarroan errefuxiatuei harrera egiteko protokolo integralaren segimendu eta hobekuntza. Harrera horrek barne hartzen ditu parlamentari jaunaren galderan aipaturikoak bezalako sektore-eremuak;

– Foru Komunitateko Administrazioa beste departamentu batzuekin koordinatzea migratzaileentzako harrera hobetzeko beharrezkoak diren ekintzak;

– Koordinatzea, administrazio publiko ezberdinetako etxebizitza-zerbitzuekin eta gizarte-zerbitzuen alorreko eskumenak dituen departamentuarekin, migratzaileek eskubide hori irits dezaten lagungarri izanen diren neurriak;

– Enplegu-zerbitzuekiko koordinazio-eginkizunak betetzea, Nafarroan migratzaileen enplegarritasuna hobetzeko;

– Nafarroako Gobernuak alor honetan darabil-tzan jarduketa-politikak hobetzearren, migrazioaren fenomeno eta migratzaileen eskubideak aztertzea.

– Kulturarteko elkarbizitza hobetzeko eta arrazakeria eta xenofobiaren aurka borrokatze aldera Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuetan gara litezkeen neurriak koordinatzea...

– Eta abar

Migratzaileei erasaten dieten sektore-eremuetan, beste departamentu batzuekiko koordinazioa arina da, eta modu desberdinetan tankeztatzen da, kasu zehatzaren arabera.

Nolanahi dela ere, departamentu honen esku-menak atzipen publikoko dokumentu batean jasota daude: 9/2021 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, zeinak aldatzen baitu 266/2019 Foru Dekretua, urriaren 30ekoa, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena (2021eko otsailaren 26ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 6an.

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

## **Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko laborategi bateraturako eraikin berria egiteari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ospitaleguneko laborategi bateraturako eraikin berria egiteari buruzkoa. Galdera 2021eko apirilaren 15eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatzizko galdera bat egin du (10-21-PES-00147), zeinean informazioa eskatzen baitu Nafarroako Ospitaleguneko laborategi bateraturari buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak igortzen duen informazioa:

Osasun Departamentuak 8.700.477 euroko inbertsioa baimendu zuen 2019ko urtarrilean,

Nafarroako Ospitalegunean eraikin berri bat eraikitzeko, bertan Ospitaleguneko laborategi bateratua jar dadin. Une hartan aurreikusitako eraikina 2021eko bigarren sei hilabetean egotea bukatuta.

Hala balitz, Navarrabiomed-Ikerketa Biomedikoaren Zentroa, zeina 2011n inauguratu baitzen, ikerketarako soilik izanen litzateke, hori izan zelako Europar Batasunaren Feder funtsen bidez % 50 kofinantzatzeko jarri zen baldintza. Hala ez balitz, Nafarroako Gobernuak itzuli egin beharko luke jasotako finantziak.

Bere garaian, "Nafarroako Ospitaleguneko Laborategi Bateratuaren 1. fasea (analisi klinikoak, hematologia eta larrialdiak) eraikitzeko eta laborategi berriarekin lotzearren galeria handitzeko obrak" lizitatzeko iragarkia argitaratu zen, 10.939.560,16 euroko balio zenbatetsiarekin, BEZa kanpo, luzapen eta aukera guztiak barne. Eskaintzak aurkezteko epea 2019ko azaroaren 18an bukatu zen.

Nafarroako Kontratazioaren Atarian jasota ageri den informazioaren arabera, obra esleitu gabe gelditu zen.

1. Osasun Departamentuak zer prozesu jarraitu du orain arte legegintzaldi honetan? Zertan da proiektua?

Pandemiaren ondorioz, kontratazio-prozedura guztiak eten egin ziren; baita, zehazki, hau ere.

Une hura gaindituta, eta lizitazioa eman gabe geratu zenez, proiektuaren aurrekontua eguneratu egin genuen. Une honetan, aurrekontu hori eguneratuta daukagu, eta lizitazio berri baterako deia egiteko moduan geundeke.

2. Osasun Departamentuak zer asmo dauka egin beharreko obraren lizitazioari eta epeei dago-kienez?

Departamentuaren asmoa da proiektua epe laburrean gauzatzea, lehentasunezkoa denez gero. Nolanahi ere, inbertsioen programazioan halako ziurgabetasun bat dago une honetan, aurreikuspenak baitaude balizko finantzaketa lortzearen inguruan, tankera honetako proiektuetarako Europako funtsen bitartezkoa. Ez dago dudarik finantzaketa-iturrien optimizazioak proiektua lizitatu eta egiteko egutegia baldintzatu ahal izanen lukeela. Zein ere den lizitaziorako aukeraturiko

unea, obrak egiteko epea 24 hilabetekoa litzateke eraikinaren kasuan, eta 8 hilabetekoa galeriarenean. Bi horiek aldi berean egin litezke, edo bata bestearen ondoren, aurrekontu-diruaren eskuragarritasunaren arabera.

3. Osasun Departamentuak gogoan al darabil NavarraBiomed eraikina eraikitzeke jasotako europar funtsak itzuli behar izatearen aukera?

Laborategi bateratuaren proiektu berriari eragin liezaiokeen ezer ez dago, Europarekin zerikusia duena.

4. Gogoan hartu al du obra hori europar funtsekin finantzatzeko aukera? Hala baldin bada, zergatik ez da sartu REACT proiektuetan?

Proiektuaren konplexutasunagatik eta REACTek behartzen dituen egite-epeengatik, ez zen komeni finantzabide hori erabiltzea; beraz, epe laburrean bestelako finantzabideren bat sortu ezean, Osasun Departamentuaren obra-aurrekontu arruntaren kargura eginen da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 6an.

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna